

Gu Ander Alberdi, Jon Esnaola, Patxi Maiza eta Naia Elizazu gara eta prozesuetan enpresa bat sortu behar dugu, erronka moduan. Guk animalia domestikatuentzat erretegia aurkeztuko dugu.

Proiektu hau oso erabilgarria egiten zaigu, izan ere jende askok eskertuko lukeela pentsatzen dugu, beraien etxeko animalien gan emozio eta maitasun handia jartzen dutelako. Askotan bizipen ugari edukitzen dituzte beraien etxeko animaliekin eta haiek hiltzen direnean, jendeari ongi iruditzen zaio beraien errauntsak jaso eta nahi duten lekuan bota edo etxean uztea.